

MATERIALISMO HISTERIKOA

Itoz



UXUE APAOLAZA LARREA

Batzuetan ez dakit zein neurritan kapitalismoak eta biok bat egin dugun suntsipen grina batzuetan. Eginak eman zaizkigun, eta gure aukerakoak ez ziren kontuek itogarriak ziruditen, erabakimena, aldaketa oztopatzen zutelako.

Familia, adibidez, diseinatuta dagoen moduan, edozein eraldaketaren guztiz kontrakoa iruditzen zitzaidan, balio kontserbadoreen gordailu, kumearen arrakasta asimilazioan oinarritzen baitzuen. Baina, azkenean, ez zen denon salbaziora eramango gintuen iraultza baten alde atomizatu. Ez gara kolektiboz aldatu, lauko familia nuklear batean gutxienez hiru etxeren jabe izatera eraman gaitu (bakoitzak berea), etxe horiek ordaintzeko hipotekak eskatzera, bakoitzak bere soldata edukitzeko lanera.

Koadrila finkoegiak, bikote finkoegiak ere oztopo, erlijioak eta nazioak zer esanik ez. Horraino kapitalismoarekin edukitako pseudokointzidentziak, eta ez guztizkoak. Baina lanak ere, hobe malguak, esan digute, hobe bidaiariak, hobe monotonoak ez badira, hobe bihar non egongo zaren ez badakizu. Zure bizitza ere hobe abentura bat bada. Eta dagoeneko sentitzen ditut helburuak guztiz urruntzen. Estatua ere, gure partez erabaki dezakeen zera hori, oztopo, azkenean.

Eta orain, dena atomizatu, baina ezer eraiki ez denean, ez denontzat, batez ere, ez behar dutenentzat, erabakimenak ez du espaziorik irabazi. Bakarrik ere ez baita ezer erabakitzen, bakarrik biziraupenak obediencia handiak eskatzen baititu. Eta eginak eta erabakimenaren aurkakoak diruditen azken hondarrak ere lehertuko ditugu: osasuna, hezkuntza... osasun-zentroa aukeratzeko, eskola aukeratzeko eskubidea nola uka daiteke, ez?

Eta adinean aurrera ohartu gara zoriontasuna ez zegoela abenturan, errutina atseginetan baizik, bestea ziurgabetasuna eta antsietatea zela; zoriontasuna ez zela bisuteriazko erabakimena, segurtasun kolektiboa zela gehiago. Orain, bakardadea da itogarria, ez irakurtzeko behar dena, ibaia gurutzatzeko zubirik gabe uzten gaituena baizik. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Euskarafobia

Bilboko Administrazioaren Auzien 1. Epaitegiak atzera bota du Erandion udaltzain jarduteko lanpostu bati ezarritako hizkuntza eskakizunaren derrigortasuna, B2 mailarena hain zuzen. Sententzian aipatzen dira Uliazpi fundazioaren hizkuntza eskakizunaren kontra erabilitako argudioak.

Presoak

Asier Ezeiza preso ohia berriz espetxeratzeko agindu dute. Hemeretzi urteko espetxe zigorra ezarri diote, Juan Priede PSEko zinegotziaren hilketan parte hartu zuten ETAko kideei laguntzea egotzita. Hamabi urte egin zituen preso, zigorra osorik beteta 2020ko maiatzean aske utzi zuten arte.

Energia

Aixeindar enpresak Azazetako (Araba) zentral eolikoan ezarri nahi dituen zortzi haize erroten proiektuak Eusko Jaurlaritzaren baimena jaso du. Proiektuan hainbat aldaketa egin beharko dituzte, ingurumenean izango duen eragina murrizteko. Hilabeteko epea dago errekurtsioa jartzeko.